



ADIKZIOEI BURUZKO EUSKADIKO INKESTA, 2017

Jokabide-adikzioei buruzko monografikoa

Laburpena

1. Azterlanaren justifikazioa

XX. mendearen amaieran, adikzio-mota berri bat garrantzia hartzen hasi zen, zeina, alkoholarekiko, tabakoarekiko edo beste droga sintetiko batzuekiko adikzioak ez bezala – substantzia jakin batekiko adikzioan oinarritzen dira–, jarduera edo jokabide jakin batekiko mendekotasunak ezaugarritzen baitu. Jokabide-adikzioen artean sartzen dira, batez ere, joko patologikoa, Interneten eta sare sozialen abusua, erosketekiko, sexuarekiko edo lanarekiko adikzioa. Lan monografiko honek adikzio horietako bi lantzen ditu: jokia eta Interneten erabilera.

Alde batetik, ausazko jokia edo apustuak honela definitzen dira: etorkizuneko eta zalantzarik emaitzen gainean nolana modutan ebalua daitezkeen diru-kopuruak edo objektuak arriskatzaren diren jarduera oro, emaitza horiek, nolabait ere, zoriaren mende badaude, eta parte-hartzaileen arteko transferentzia ahalbidetzen badute, gogoan hartu gabe jokalariren trebetasun-maila nagusitzen den edo soil-soilik suertearen, enbidoaren edo zoriaren arabekoak diren. Beste aldetik, Interneten eta sare sozial birtualen kasuan, azken urteotan indarrez sartu diren teknologiak dira, eta eragin handia izan dute, gazteen artean batez ere. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien artean, Internet nabarmentzen da gainerakoaren gainetik, batez ere, gailu informatikoetatik zein telefonia mugikorreko gailuetatik oso erraza baita sarean sartzea. Gailu horiek eskaintzen dituzten zerbitzu ugarien artean, nabarmentzekoak dira, alde batetik, informazioaren bilaketa, eta, bestetik, interakzio sozialarena.

Adikziozko jokabideen ezaugarri komun eta nagusi bat da jardueraren gaineko kontrola galtzea, eta horrek ondorio larriak ekarri eta eragin ditzake dagokien pertsonen eta haien ingurunearen eguneroko bizitzan. Jokoaren kasuan, adikzioa –ludopatía edo joko patologikoa ere deitzen zaio– adikzio-nahasmendu bat da, jokatzeko eta apustu egiteko urgentzia psikologikoki kontrolaezin batek ezaugarritzen duena, zeinak, etengabe eta gero eta indar handiagoz, negatiboki eragiten baitie bizitza pertsonalari, familia- eta lan-bizitzari eta aisialdi-denborari. Interneten erabilerari dagokionez, adikzioaren kontzeptuak teknologia honen erabilera kontrolagaitz eta kaltegarriari egiten dio erreferentzia; pixkana-pixkana hasten da, eta, denborarekin, ondorio kaltegarriak izan ditzake lan-, ikasketa- eta gizarte-arloan.

Azken urteotan, gora egin du jokabide-adikzioekiko arreta sozialak eta zientifikoak. Horien artean daude, batetik, “tradizionalagotzat” har daitezkeenak eta ezagunagoak direnak, ludopatia esate baterako, eta, bestetik, adikzio “berriak”, gutxiago ikertu direnak, hala nola Internetekiko adikzioa. Aldaketa horiek guztiak, gainera, droga-adikzioen politiketan ere hasi dira islatzen, politika berriak hasiak baitira substantziarik gabeko adikzioak beren jardueran planetan txertatzen.

Monografiko honek Euskadik jokabide-adikzioen inguruan duen egoeraren ikuspegi orokorra ematen du, zehazki, jokoarena eta Interneten erabilerarena. Halaber, azterketak aukera ematen du herritarrek jokoari eta Interneten erabilerari buruz dituzten jarrerak eta pertzepzioa ezagutzeko.

2. Helburuak eta metodologia

Monografiko honen helburu nagusia honako datu hauek deskribatzea eta aztertzea da, jokoari eta Interneten erabilerari dagokienez: erabileraren maiztasunak, haietara iristeko bideak, gastatutako dirua, arriskuko praktikak edo erabilerak edota praktika edo erabileraren problematikoak, bilakaera, talde sozialen araberrako banaketa, arrisku edo erabileraren problematikoren bat duten pertsonen profila eta haien pertzepzio soziala.

Informazio-iturria 2017ko Adikzioen Euskadiko Inkesta izan zen, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egiten duena –lehen Euskadi eta Drogak Inkesta izenekoa–, eta 2014-2017 Euskal Estatistika Planaren barruan dagoena. Entrenatutako langileek egiten duten inkesta bat da, galdeketa etxeetan egiten da, eta helburua da 15 eta 74 urte bitarteko euskal biztanleen zenbait adikzioen prebalentziaren berri jakitea –izan adikzio horiek substantziarekin nahiz substantziarik gabe–, eta adikzioekin lotutako hainbat gairi buruzko pertzepzioa eta balorazioa ezagutzeko. 1992ko lehen edizioa egin zenetik beste hamabi egin dira, eta, gaur egun, hauxe da adikzioen arloko Estatuko inkestarik zahar eta sendoenetako bat. Alabaina, 2012an egin baitziren lehen aldiz inkestan jokoari eta Interneten erabilerari buruzko galderak, bilakaera-analisiari dagokionez, monografiko honek 2012ko emaitzak 2017koekin alderatu besterik ez du egiten.

Helburuak lortzeko bi analisi-metodo erabili dira, elkarren osagarriak:

- Alde batetik, jokabide-adikzioekin lotutako aldagai nagusien azterketa deskribatzaile bat egin da, baita herritarrek gai honetaz duten pertzepzioa jasotzen duten aldagaiena ere. Azterketa deskribatzaile horren emaitzak direla medio, jokabide-adikzioen Euskadiko egungo egoeraren irudi orokor bat osatu ahal izan da, baita herritarrek arlo honetan dituzten jarrerak eta iritzia ezagutu ere. Aztertutako aldagaietan, adinaren arabera estandarizatutako prebalentziak kalkulatu dira, bai emakumeentzat, bai gizonentzat, eta ikasketa-mailaren arabera estandarizatuak (arriskuko jokabide-adikzioen edo erabileraren problematikoen kasuan). Adinaren araberrako estandarizazioa metodo zuzenaren bidez egin da, 2017ko urtarilaren 1eko errolda demografikoari (EIN) dagokion Euskadiko biztanleria hartuta erreferentziatuz. Azterketak sexua eta adina banandurik egin dira, eta jokabide-adikzio arriskutsuen edo erabileraren problematikoen kasuan, ikasketa-maila banandurik.

- Beste aldetik, analisi deskribatzailea osatzeko, azalpen-azterketa bat egin da, aldagai soziodemografiko nagusiek –sexuak, adinak eta ikasketa-mailak– jokoan eta Internetekiko arrisku-praktikan edo praktika problematikoan duten eraginari buruz. Azterketa hori egiteko, lehenik eta behin, Khi-karratu proba erabili da, % 95eko esangura-mailarekin ($\alpha > 0.05$). Adierazgarriak gertatzen diren erlazioak detektatu ondoren, dagozkien *Odds Ratio*ak (OR) kalkulatu dira, erregresio logistikoko eredu bidez, talde batzuek besteen gainean zenbat probabilitate gehiago duten jakiteko. *Odds Ratio*ak (OR), erregresio logistikoko ereduetan oinarrituta kalkulaturik, sexuaren, adin-taldean eta ikasketa-mailaren arabera estratifikatu dira. Era berean, sexuaren eta ikasketa-mailaren kasuan, erregresio-ereduak adinaren arabera doitu dira, aldagai hori kontrolatu ahal izateko aldagai independenteen eta mendekoen arteko erlazioan esku har dezakeen nahaste-faktore gisa.

3. Emaizta nagusiak


3.1. Jokoa

3.1.1. Joko-mota desberdinen praktikaren maiztasuna

2017an, Euskadin, 15 eta 74 urte bitarteko hamar pertsonatik zazpi (% 71,6) –1.190.000 pertsona inguruk– jokatu zuten edo apustu egin zuten jokoren batean, diruarekin, azken 12 hilabeteetan. Garrantziaren arabera, hurrenez hurren, % 68,7k loterian, kinieletan, loteria primitiboan edo bono-lotoan jokatu du, % 7,3k kirol-apustuak egin ditu, % 2,9 kartetan ibili da dirua jokatuz eta % 2,7 makina txanpon-jaleetan, besteak beste.

Jokoaren maiztasunari dagokionez, biztanleen % 24,3k asteen behin edo gehiagotan jokatu du loterian eta bestelako ausazko jokoetan. Gainerako joko-moten kasuan, asteroko jokalarien ehunekoa % 2tik beherakoa da.

1. koadroa. Joko-mota desberdinen praktikaren maiztasuna azken 12 hilabeteetan biztanleria guztiaren artean. 2017 (%)




Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017.

Jokoren baten azken hamabi hilabeteetako praktika aztertuz gero, ez da ia alderik ikusten gizonetzkoen (% 68,0) eta emakumezkoen (% 69,0) artean loteria, kiniela eta bono-lotearen kasuan. Aztertutako gainerako joko-motetan, ordea, gizonen ehunekoa, oro har, handiagoa da emakumeena baino.

Adina ere faktore garrantzitsua da Euskadiko joko-praktika aztertzeko orduan, profil desberdinak ikusten baitira aztertutako joko-motaren arabera. 35 eta 74 urte bitarteko biztanleen % 77,5ek loteria-jokoetan eta gainerako ausazko jokoetan parte hartu du, eta 15 eta 34 urte bitarteko biztanleei dagokienez, berriz, % 41,2k. Alabaina, bestelako jokoetan, jokalarien ehunekoa handiagoa da biztanle gazteenen artean. Hala, kirol-apustuak bereziki nabarmentzen dira gizon gazteen artean. 15-34 urteko gizonetzkoen % 29,9k kirol-apustu mota hori egin du azken 12 hilabeteetan. Zifra hori bereziki azpimarragarria da alderatzen bada tankera horretako kirol-apustuak egin dituzten emakume gazteen % 2,8rekin eta 35 urte edo gehiagoko gizonen % 8,6rekin.

2. koadroa. Joko-mota desberdinen praktikaren prebalentzia azken 12 hilabeteetan, sexuaren eta adinaren arabera. 2017 (%).




Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017

3.1.2. Jokoa hasteko bideak

Lau pertsonatik batek (biztanleriaren % 25,5) ausazko jokoetan edo apustuaren espezializatutako establezimenduren batera jo du Euskadin azken urtean (edo apustu-terminalak erabili ditu tabernetan eta beste ostalaritza-establezimendu batzuetan). Bestalde, % 2k –hau da, 33.244 pertsonak– Interneteko aplikazioak edo web-orriak erabili ditu diruarekin jokatzeko edo apustuak egiteko.

Azken 12 hilabeteetan establezimendu espezializatueta edo terminaletan aritu direnei dagokienez, sexuaren eta adin-taldearen arabera, nabarmentzekoa da 15-24 urteko (% 33,2) eta 25-34 urteko (% 31,6) gizonezkoen ehuneko handia, batez ere jardun berean aritu diren adin bereko emakumeen ehunekoarekin alderatuta (15-24 urteko emakumeen % 9,3 eta 25-34 urteko % 20,6).

3. koadroa. Establezimendu espezializatueta edo terminaletara joandako pertsonak azken 12 hilabeteetan, sexuaren eta adinaren arabera. 2017 (%).



Oharra: joko-aretoak, kasinoak, bingoa, kirol-apustuetaarako lokalak eta abar sartzen dira ausazko jokoetan edo apustueta espezializatutako establezimenduen barruan.

Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017


Biztanleriaren artean hedapen mugatua badute ere, azken urtean diruarekin jokatzeko edo apustuak egiteko aplikazioak edo webguneak erabili dituzten gizonezkoen ehunekoa (% 3,3) lau bider handitu da halakoak erabili dituzten emakumeen ehunekoaren aldean (% 0,8). Era berean, jokoan aritzeko aplikazioak edo webguneak erabili dituzten 15-34 urteko gizonezkoen ehunekoa % 7,5ekoa izan da; datu hori ez da nolana hikoia, adin bereko emakumezkoen % 1,1ekin eta horrelako gailuak erabili dituzten biztanle guztien % 2,0ekin alderatuta.

3.1.3. Azken urte honetan joko-praktiketan izan den gastua eta gastatu den kantitaterik handiena

Apustueta gastatutako kantitateei dagokienez, jokalarien % 60 inguruk 100 euro baino gutxiago gastatu du azken urtean (% 58,0), % 28,1ek 100 eta 299 euro bitarte, eta % 12,7k – biztanleria osoaren % 9,1– 300 euro baino gehiago.

Egun bakar batean gastatutako kantitaterik handienari dagokionez, azken urtean jokalaria gehienek (% 92,0) 60 euro baino gutxiago gastatu dute egun bakar batean. Jokalarien % 6,6k 60 eta 299 euro arteko gastua izan du jokoan, eta % 0,8k soilik adierazi du 300 euro gainditu dituela. Oro har, 60 eurotik gorako gastua egin duten pertsonak biztanleria osoaren % 5,3 dira.

4. koadroa. Azken urtean egin den gastua eta azken 12 hilabeteetan diruarekin jokatu duten biztanleen artean joko-praktiketan gastatutako kantitaterik handiena. 2017 (%)



Oharra: azken 12 hilabeteotan diruarekin jokatu duen biztanleriaren % 71,6aren gainean kalkulaturiko ehunekoak.
Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017.

3.1.4. Arrisku- eta adikzio-jokoak

Euskadiko biztanleriaren % 26,3 –400.000 pertsona baino gehixeago– jokalari aktibotzat har daitezke, gutxienez astean behingo maiztasunez ausazko jokoak egiten baitituzte, eta/edo urtean zehar gutxienez 500 euro gastatu baitituzte joko-mota horietan. Horietatik, % 10ek baino gutxiagok (% 9,8) –biztanleriaren % 2,5ek eta, termino absolututan, 42.000 pertsona baino gehixeagok– nolabaiteko arriskuren bat dute, eta gainerako % 90,3k ez luke inolako arriskurik izango jokoari dagokionez.

Emaitzek erakusten dutenez, jokalari aktiboen ehunekoa handiagoa da gizonzkoen artean, 35 eta 74 urte bitarteko biztanlerian eta ikasketa-maila baxua dutenen artean. Hala ere, nahiz eta jokalari aktiboen ehunekoa baxuagoa izan 15-34 urteko gizonen artean 35 urtetik gorakoen artean baino, arrisku-motaren bat (baxua, moderatua edo gehiegizkoa) dutenen artean, ehunekoa altuagoa da gazteen artean (% 5,0; 35 eta 74 urte bitarteko gizonen artean, berriz, % 3,5).

Nahiz eta jokalari aktiboen ehunekoa baxuagoa izan gazteen artean, jokalari gazte horiek jokabide arriskutsuagoa dute. Jokalariak diren gizonzko gazteen % 27,2k arriskuren bat dute jokoari dagokionez –baxua, moderatua nahiz gehiegizkoa–, 35 urte edo gehiago dituztenen % 9,7ren aldean. Emakumeen kasuan, arriskuren bat duten 15 eta 34 urte bitarteko jokalarien ehunekoa % 21,5 da, eta 35 eta 74 urte bitarteko jokalariena, berriz, % 11,0.

5. koadroa. Biztanleriaren banaketa jokoarekiko arrisku-mailaren arabera, sexua, adin-taldeak eta ikasketak-mailak kontuan hartuta, 2017 (aktiboki jokatzeko duen biztanleria guztiaren gaineko %)

	Arriskurik gabe	Arrisku txikia	Arrisku ertaina	Gehiegizko jokalaria	Guztira
Guztira	90,3	7,3	1,7	0,8	100,0
Sexua					
Emakumezkoak	94,2	5,5	0,0	0,4	100,0
Gizonezkoak	87,9	8,4	2,7	1,0	100,0
Adina					
15-34	78,4	12,9	5,0	3,6	100,0
35-74	91,9	6,5	1,2	0,4	100,0
Ikasketak-maila					
Behe-mailako ikasketak	90,6	6,5	1,4	1,5	100,0
Goi-mailako ikasketak	90,2	7,7	1,8	0,4	100,0

1. oharra: grafiko honetan jaso diren ehunekoak biztanleria guztiaren gainean kalkulatu dira.

2. oharra: jokalaria aktibotzat hartzen da azken urtean gutxienez astean behin jokorekin batean diruarekin apustu egin duen biztanlea, edo azken urtean jokoan 500 euro edo gehiago gastatu dituena.

Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017.

3.2. Interneten erabilera

3.2.1. Interneten erabileraren maiztasuna

15 eta 74 urte bitarteko biztanleen % 85,1ek bizitzan noizbait erabili du Internet. Azken 30 egunetan Internet erabiltzeari dagokionez, berriz, gizonen % 16,1ek eta emakumeen % 17,7k ez du tresna hau erabili. Beste muturrean, gizonen % 5,9k eta emakumeen % 6,8k adierazten dute, batez beste, egunean lau ordu baino gehiago egon direla konektatuta lanegun batean, eta % 8,4k eta % 8,6k, hurrenez hurren, asteburuko egun batean, lanaz edo ikasketez bestelako helburuekin.

Adin-taldeei dagokionez, 15 eta 34 urte bitarteko biztanleen % 17,2k adierazi du azken 30 egunetan Internet erabili duela lanaz edo ikasketez bestelako helburuekin, astelehenetik ostegunera bitarteko batez besteko lanegun batean, eta % 25,7k asteburuko batez besteko egun batean, ostiraletik igandera; 35 eta 74 urte bitarteko biztanleen artean, berriz, antzeko erabilera egin dutenen ehunekoa ez da % 3ra iristen (% 2,8 batez besteko lanegun batean eta % 2,9 asteburuko batez besteko egun batean).

6. koadroa. Azken 30 egunetan egin den Internet-erabileraren maiztasuna, sexuaren eta adin-taldeen arabera, 2017 (biztanleria guztiaren %)

	Gizonezkoa		Emakumezkoa		Guztira	
	15-34	35-74	15-34	35-74	15-34	35-74
Batez besteko laneguna (astelehenetik ostegunera)						
Ez du Internet inoiz erabili	2,4	17,6	4,0	19,6	3,2	18,6
Ez du erabili azken 30 egunetan	1,1	2,7	0,2	2,4	0,7	2,6
Ordu erdia edo gutxiago	15,2	38,1	11,5	39,8	13,4	39,0
Ordubete inguru	30,6	26,3	29,5	24,3	30,1	25,3
2-3 ordu inguru	35,0	12,6	35,9	11,0	35,5	11,8
4-5 ordu inguru	10,3	1,7	12,9	1,9	11,6	1,8
6 ordu edo gehiago	5,3	1,0	5,9	1,0	5,6	1,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

[Jarraipena]

	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira	
	15-34	35-74	15-34	35-74	15-34	35-74
Asteburuko batez besteko eguna (ostiraletik igandera)						
Ez du Internet inoiz erabili	2,4	17,6	4,0	19,6	3,2	18,6
Ez du erabili azken 30 egunetan	2,3	5,5	2,0	4,8	2,2	5,2
Ordu erdia edo gutxiago	13,8	34,2	11,0	34,9	12,4	34,6
Orubete inguru	19,1	21,2	19,2	21,6	19,2	21,4
2 -3 ordu inguru	37,8	18,3	36,9	16,5	37,4	17,4
4-5 ordu inguru	17,5	2,6	18,0	2,4	17,7	2,5
6 ordu edo gehiago	7,1	0,6	8,8	0,2	8,0	0,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Adikzioei buruzko EAeko Inkesta, 2017

Azken 30 egunetan Internet erabili duten biztanleak aztertuz gero, Euskadin Internet erabiltzen duten hamar pertsonatik zazpi orubete baino gutxiagoko maiztasunarekin erabiltzen dute tresna hori batez besteko lanegun batean (% 71,3), eta hamarretik sei asteburuko batez besteko egun batean (% 62,0). Beste muturrean, 6 orduetik gorako maiztasunarekin erabiltzen dutenen ehunekoa erabiltzaileen % 3,0tik behera dago.

3.2.2. Interneten erabilera arriskutsua edo problematikoak

Euskadin, 15 eta 74 urte bitarteko 12.000 pertsona inguruk (biztanleria osoaren % 0,7) Interneten erabilera problematikoak ageri dute. Erabilera problematikora heldu gabe ere, biztanleriaren % 4,3k erabilera arriskutsua izango luke (72.999 pertsona inguru).

Internet erabiltzen ez duten biztanleen ehunekoa handiagoa da emakumeen artean (% 15,8) gizonen artean baino (% 13,8). Alabaina, Interneten erabilera problematikoak dutenen ehunekoa ere handiagoa da emakumeen artean (gizonen % 0,4 eta emakumeen % 1,1). Oro har, emakumeen % 5,5ek eta gizonen % 4,8k Internet modu arriskutsuan edo problematikoan erabiltzen dutela esan daiteke.

7. koadroa. Biztanleria guztiaren banaketa Interneten erabilera arriskutsu edo problematikoari dagokionez, Ormanen Internetetikiko adikzioaren testaren arabera, sexua, adin-taldeak eta ikasketak mailak gogoan hartuta, 2017 (biztanleria guztiaren %).

	Ez du Internet erabiltzen	Arazorik gabe	Arriskuarekin	Erabilera problematikoak	Guztira
Guztira	14,9	80,1	4,3	0,7	100,0
Sexua					
Emakumezkoak	15,9	78,8	4,3	1,1	100,0
Gizonezkoak	13,9	81,4	4,4	0,4	100,0
Adina					
15-34	3,2	81,3	13,4	2,1	100,0
35-74	18,6	79,7	1,5	0,3	100,0
Ikasketak-maila					
Behe-mailako ikasketak	33,6	62,1	3,6	0,7	100,0
Goi-mailako ikasketak	7,6	87,1	4,6	0,7	100,0


Oharra: grafiko honetan jaso diren ehunekoa biztanleria guztiaren gainean kalkulatu dira.

Iturria: Adikzioei buruzko EAeko Inkesta, 2017

Interneten erabilera arriskutsuak eta problematikoak eredu argi bat erakusten du, adinaren arabera. Zehazki, nerabezaroarekin eta lehen gaztaroarekin oso estu lotutako fenomeno da. Biztanleriaren adinak behera egin ahala, behera egiten du, halaber, sarea erabiltzen ez dutenen ehunekoak, eta, aldi berean, gora egiten du Interneten erabilera arriskutsu edo problematikoarenak. Eman diren erantzunetan oinarrituta, esan daiteke arriskuko erabilera edo erabilera problematikoak egiten duela biztanleriaren % 20 inguruk 15 eta 24 urte bitarteko biztanleen artean –% 23,7 emakumeen artean eta % 19,9 gizonen artean–. Aitzitik, 55 urtetik aurrera, % 1etik beherakoa da arriskuren bat dutenen erabiltzaileen ehunekoak.

2012 eta 2017 arteko bilakaerari dagokionez, berriz, nabarmentzekoa da Interneten arriskuko erabilera mantentzen duten pertsonen ehunekoak % 1,8tik % 4,3ra igo dela. Aitzitik, erabilera problematikoko kategoriarik larrienak behera egin du –oso modu arinean bada ere–, 2012an Euskadiko biztanleriaren % 1,2ra iritsi baitzen, eta 2017an % 0,7ra. Oro har, arriskuren bat (problematikoa izan edo ez) ageri duten pertsonak biztanleriaren % 3,0 izatetik % 5,0 izatera igaro dira bost urtean.

8. koadroa. Biztanleria guztiaren banaketa Interneten erabilera arriskutsu edo problematikoari dagokionez, Ormanen Internetekiko adikzioaren testaren arabera, sexua eta adin-taldeak gogoan hartuta. 2017 (biztanleria guztiaren %).



Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017

3.3. Erabilera eta praktika jakin batzuen pertzepzio soziala

3.3.1. Jokoarekiko adikzioari egotzitako larritasunaren balorazioa.


Euskadiko biztanleen erdiek baino gehiagok (% 53,8) jokoarekiko adikzio nahiko larria (% 33,3) edo oso larria (% 20,5) dela diote. Larritasuna zertxobait handiagoa da emakumezkoen ikuspegitik (% 55,4) gizonezkoen ikuspegitik baino (% 52,2), eta handixeagoa da orobat 35 eta 74 urte bitarteko pertsonen artean (% 55,2), 15 eta 34 urte bitartekoaren artean baino (% 49,3).

3.3.2. Jokoarekin eta Interneten erabilerarekin lotutako hainbat praktikari egotzitako balorazioa

Euskadiko lau pertsonatik hiruk (% 74,5) uste dute ausazko jokoetan edo apustueta gutxienez astean behin jokatzek, edo jardura horretan urtean 700 euro baino gehiago gastatzek nahiko arazo (% 35,9) edo arazo asko (% 38,6) eragiten dituela. Internet erabiltzeari dagokionez, Euskadiko hamar pertsonatik zazpi (% 71,7) uste dute egunean hiru ordu baino gehiago emateak Interneten erabilera beharra duten jardueretan (eskolako edo laneko eginkizunetan emandako denbora kontuan hartu gabe), nahiko arazo (% 44,7) edo arazo asko eragiten dituela (% 27,0).

Beste kontsumo edo erabilera batzuei dagokienez, jokoari egotzitako arrisku-pertzepzioa (asteroko maiztasuna, edo 700 eurotik gorako gastua urteko) eta Internet egunean 3 ordu baino gehiagoz erabiltzea, tabakoaren eta alkoholaren kontsumo intentsiboaren eta hileroko kokainaren kontsumoaren jarraibideen azpitik dago.

9. koadroa. Zenbait kontsumo/erabilerari egotzitako arriskuaren pertzepzioa. 2017 (%)



Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017.

4. Ondorioak

Lehenik eta behin, **jokoarekin** hasita, 2017an, 15 eta 74 urte bitarteko hamar pertsonatik zazpi inguruk jokatu du edo apustu egin du diruarekin jokoren batean azken 12 hilabeteetan. Gehien erabiltzen den modalitatea loteria eta gainerako jokoak dira, biztanleen % 24,3k adierazi baitute astean behin edo gehiagotan jokatu dutela. Loteria-jokoetan sexuaren aldetik alde nabarmenik ez badago ere, gainerako jokoetan gizonezkoen ehunekoa handiagoa da oro har. Adinari dagokionez ere, alde nabarmena ikusten da aztertutako jokoaren arabera: 35 eta 74 urte bitarteko biztanleriak loteria-jokoetan duen parte-hartzea 15-34 urteko biztanleriak duena baino nabarmen handiagoa da. Alabaina, gainerako joko-motetan, biztanle gazteen artean handiagoa da jokalarien ehunekoa.

Loteria-jokoetatik harago, nabarmentzekoak dira kirol-apustuak, batez ere 15-34 urteko gizonezkoen artean. Zehazki, biztanleria-segmentu horren ia % 30ek kirol-apustuak egin ditu azken urtean. Zifra hori adierazgarria da, emakume gazteen % 2,8rekin eta mota horretako kirol-apustuak ere egin dituzten biztanle guztien % 7,3rekin alderatuz gero.

Jokoan aritzeko moduari dagokionez, herritarren laurden bat ausazko jokoetan edo apustuetan espezializatutako establezimenduren batera joan da azken urtean. Sexua eta adin-taldea kontuan hartuta, nabarmentzekoa da establezimendu mota horietara sartu den 15-24 urteko eta 25-34 urteko gizonezkoen ehuneko handia, batez ere leku beretara joan diren adin bereko emakumezkoen ehunekoarekin alderatuz gero (% 33,2 eta % 31,6, % 9,3 eta % 20,6, hurrenez hurren).

Diruarekin jokatzeko edo apustuak egiteko aplikazioak edo web-orriak erabiltzen dutenen kopurua, biztanleria orokorrari dagokionez, oso baxua den arren (% 2), 15-34 urteko gizonezkoen erabilera deigarria da aurreko datuarekin alderatuz gero (% 7,5).

Azkenik, nabarmentzekoa da Euskadin 400.000 pertsona inguru (biztanleriaren % 26,3) jokalaria aktibotzat har daitezkeela. Horietatik, % 9,8k arriskuren bat dute. Gazteen artean txikiagoa bada ere jokalaria aktiboen ehunekoa, biztanleriaren segmentu horrek jokabide arriskutsuagoa du.

Bigarrenik, **Interneten erabilerari** buruzko azterketari dagokionez, herritarren % 14,9k soilik adierazi du ez duela inoiz tresna hori erabili. Kontrako muturrean, gizonezkoen % 5,9k eta emakumezkoen % 6,8k adierazten dute konektatuta egon direla, batez beste, azken 30 egunetan, egunean lau ordu baino gehiago lanegun batean, eta % 8,4k eta % 8,6k asteburuko egun batean, lanaz edo ikasketez bestelako helburuekin. Biztanle gazteenek askoz ere gehiago erabiltzen dute Internet, lanaz eta azterlanaz bestelako helburuetarako, modu intentsiboan. Adibidez, 15 eta 34 urte bitarteko biztanleen % 17,2k adierazi du Internet modu intentsiboan erabili duela azken 30 egunetan; 35 eta 74 urte bitarteko biztanleen artean, aldiz, antzeko erabilera egin dutenen ehunekoa ez da % 3ra iristen.

Euskadin, badirudi biztanleen % 5 inguruk gutxienez Internet modu arriskutsuan erabiltzen duela (kasu batzuetan, erabilera problematikotzat ere jotzen da). Berriz ere, adina funtsezko faktorea da, arrisku-erabilerak lotura estua baitu nerabezaroarekin eta lehen gaztaroarekin. Arriskuko erabilera edo erabilera problematikoa egiten duen biztanleria % 20 ingurukoa da 15 eta 24 urte bitarteko biztanleen artean.

Bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da 2012 eta 2018 artean % 1,8tik % 4,3ra igo dela Interneten erabilera arriskutsua. Oro har, arriskuren bat (problematikoa izan edo ez) duten pertsonak biztanleriaren % 3,0 izatetik % 5,0 izatera igaro dira bost urtean.

Hirugarrenik eta azkenik, jokoarekiko **pertzepzio sozialari** dagokionez, esan behar da Euskadiko biztanleen erdiek baino gehiagok (% 53,8) jokoarekiko adikzioari larritasun handi samarra edo oso handia egozten diotela. Halaber, Euskadiko hamar pertsonatik zazpik (% 71,7) uste dute aski arazo edo arazo asko dakartzala egunean hiru ordu baino gehiago Internet erabiltzea eskatzen duten jardueretan aritzeak. Hala eta guztiz ere, tabako-pakete baten eguneroko kontsumoan, alkoholaren kontsumo intentsiboan eta kokainaren hileroko kontsumoan baino arrisku gutxiago hautematen da jokoarekiko adikzioan.